

◆ 'EGIN'-EN KONTRAKO OPERAZIOA ◆

Ramon Zallo

EHuko irakaslea

Canovas hemen da

■ Lehen-lehenik, deigarria da *Egin*—en aldiaren indarrez sartzeko duten erraztasun kezkarria. Begien bistakoa da helburu politikoa dutela. Eta penagarria da epaileek aipatu helburu horri amore ematea. Bueren-Atutxa bikoteak egin zuen, eta orain Garzon-Mayorrek egin dute. Ez dago batere zuhurtasunik eragindako ondasun publikoak demokraziaren oinarrietako bat izan arren: adierazpen, informazio eta prentsa askatasuna. Lehenago ere huts egin zuten Pepe Reirekin.

Bigarrenik, atentzioa ematen du Mayorrek *Egin* ikertzeko eta, ondorioz, behin-behinean—espero izan dezagun—prezintatzeko emandako arrazoiak horren zehaztu gabeak eta kontrajarriak izateak: ondasun batzuk gordetzea, edo harreman iraunkorrak izatea, edo egitura politiko-informatibo terrorista osatzea, edo legez kontrako finantzaketa. Hau da, ez dago argi zein den delitua, baina, izan, baten bat izango da. Eskandaluak barregarri uzten du edozein instrukzioaren funtzionamendu judizial normala, begien bistako delitu bat tipifikatzea baita prozedura egokia, eta ez, azkenean, aipagai dugun honetan gertatu bezala, delitu mota sortzea.

Hirugarrenik, Orain-ek ez du txurrorik produzitzen, iritzi publikoarentzako informazioa baizik, pluraltasuna oinarri-oinarritik

babestutako ondasuntzat hartzeaz harro izan den gizarte batean produzitu ere. Epaileak batere arretarik gabe jokatu du, eta ez du hedabidea babestu argitaratzen zuen enpresatik. Arrazoiak legez kontrako uestezko finantzaketa balitz, deigarria da PSOEri oso bestelako tratamendua eman izana legez kontrako finantzaketa masiboaren kasuan. Marino Barbero epaileak, instrukzio aldiaren inor kartzelaratzeari burutik pasatu ere egin gabe, jasan behar izan zituen itsuskeriek ez dute batere zerikusirik lekuko izan garen sarekada honekin.

Laugarrenik, hedabide batek leku sakratua izan beharko luke, bertan ageriko delitu bat izan ezean, baina hau ez da kasua. HBko aurreko mahai nazionala kondenatu ondoren, *Haien aurka* leloak indarrean jarraitzen du, prozedura formalki garantisten bitartez, baina zuzentasuna eta balio demokratikoak estatu-arrazoien mende jarriz, eta independentzia judiziala hautsiz. Eredu liberal-autoritariora hurbiltzen ari gara. Dagoeneko denok hasi gara ordaintzen indarkeria konpontzeko *irtenbide politzialaren* prezioa; demokrazia sozialdemokratek, berriz, txalo egiten dute estatu-arrazoien alde.

Bosgarrenik, Mayor Orejak, Blancoren erailketaren urteurrenean, tentsioaren estrategia azpimarratu du, hauteskunde

aurreko garaian gaudela kontuan hartuz, eta *sendotasun* itxura agertu nahian.

Neurria egoera gehiago estutzea da, bi helburu politikoki lortzeko. Alde batetik, ezker abertzalea bere onetik ateratzea, hain zuzen ere zabaltze prozesu batean murgilduta zegoenean. Bestetik, EAJri irmotasunik eza leporatzea, edo haiekin elkar hartuta aritu dela. Aznarrek legegintzaldiko kideei egindako errietak fruituak eman ditu. Lehen, HBko zuzendaritza kartzelaratu zuten epai bidegabe batekin; orain, *Egin*-eko zuzendaritza. Nahiago dituzte amarru antidemokratikoak legea errespetatzeko itxurak eginez, HB legez kanpo jartzea baino. Baina erakunde bateko zuzendaritza osoa kartzelan badago, eta haren hedabideko zuzendaritza osoa ere kartzelan badago, zer egin behar dute joera politiko hori legez kanpo jartzeko?

Bukatzeko, jokabide tamalgarri horrekin lau balio hondatuta geratu dira: independentzia judiziala, prentsa askatasuna, herritarren administrazioarekiko berdintasuna, eta gizartearen ordezkatzen duten legezko joera politikoentzako tratu judizial berdina. Canovasek Sagastaren lekua hartu du, eta demokraziaren kontura. Trantsizio luzea errestraurazio bihurtuko da. ■

Eredakzioan itzulia



Anjel Lertxundi

Idazlea

Zibiltasuna jokoan

■ Atzoko albiste nagusiaren bi alde nabarmendu nahi nituzke boteprontoko lerro azkar hauen bidez: hamaika pertsonen atxiloteta, eta *Egin* egunkaria eta irratia ixtea. Bi gorabeherok uztartzerakoan, badirudi epaileak pertsona batzuen balizko jokabide deliktiboa hartu duela motibotzat egunkaria eta irratia ixteko.

Ezer gutxi dakit legeei buruz, eta ulergaitza egiten zait bi gorabeheren arteko uztarteketa hori, baina ezin utz ditzaket seinaltatu gabe lotura horrek izan dezakeen gobernuaren menpe jarritako justizia bati buruzko irakurketa politikoa batetik (Espainian gehienetan gertatzen ari da legearen beso

eragilea eta gobernuak une horretan darman politika bat etortzearen *kasualitate*), eta herri honetako sektore garrantzitsu baten ahotsa mututu nahia bestetik.

Goiz da neurrien helmen politikoa aurreikuszeko, baina modu honetan ere irudika daiteke atzoko gertakizunen itzalpeko eszenategia: gainean ditugu hauteskundeak, eta PPko gobernuak, ETArekin aurkakako bide politziala areagotzeko errentagarritasun politikoa ekarriko dion ueste osoz, prest dago euskal auziaren hainbat koska estutzeko. Bestalde, ni nago gobernuarentzat koska horiek estutzea bezain garrantzitsua dela *ausardia demokratikoa* erakustea, horrela indarkeria

arbuaitzen duten sektoreetan eskuare botobiltzailea pasatzeko. Erants diezaiogun horri guztiari PP alderdiak etengabe darabilen legearekiko errespetu osoaren diskurtsoa ere, GALeko auzia erabakitzeaz dagoen une honetan sozialistei hainbeste kalte eragiten diena.

Ororen gainetik, ordea, gure herriko sektore garrantzitsu baten ahotsa isilaraztea bera da kezkarria. Sektore hori diskurtso zibilerak erakarri behar dela dio askok aho txikiarekin, baina esku-zarta hots handikoz txalotuko du *Egin* itxi izana: aski modu iruzurtia iruditzen zait zibiltasuna indartzeko.... ■

Txillardegi

Idazlea

Fazismorako bidean

■ Hemen dugu. Mehatzuak behin eta berriz bota ondoren, oraingoan bururaino joateko itxura hartu du. Hertsiki egin dute *Egin*: bai egunkaria, bai irratia.

Aspaldidaniko asmoa, jakina denez: *un sano regionalismo español* delakoaren barruan mogitzen ez diren oro, erauzi. *«Terminarán todos en la cárcel. Todos»*, esan zuen berriki Madrileko agintari nagusiak.

Eta horretan ari dira. Jakinaren gainean jarri gintuzten *«A por ellos!»* ultranazionalista eta historikoko haren leherketan. Eta hemen ditugu *cruzadoak*.

Eta nor bere lekuan dago. *«Aznar y el PNV juntos para toda la legislatura»* irakurri dugu gaur goizeko prentsan. Hori ere bere horretan.

Bakarrik gaude, beraz. Bakarrik gaude abertzaleok. Ez baita gauza berria: nik bederen zentzua iritsi nuenuez geroztik, bakarrik senditu dut abertzale mundua behin eta berriz. Eta hertsiki uztarturik, berriz, espagnolistak eta euzko errejonalistak gure aurka. Ez da gaurko kontua.

Ez dute lortu *Egin* espainiar sisteman kokatzea eta etsitzea. *Españiar pentsamendu* bakarrik ez du *Egin* irentsi.

Eta hori ezin dezakete onar.

Ezker aldetikako ahots hiru okaztagarri gertatzen zaien.

Baina ahots abertzaleak egiten die minik handiena. Zeren-eta bere ongi baitakite (gu geuk baino hobeki), errejonalistak oro *oposición de Su Majestad* besterik ez direla, eta sistemaren beraren atal huts; baita ezker hitzaz jantzirik ere.

Abertzaletasunaren defentsa legetik at dago jadanik. Gasteizko bulegoetako entzuketek garbi adierazi zuten, Mahai Nazional osoa gartzelaratzek ezin garbiago utzi zuenez, eta orain *Egin*-en istek ezin lotsagabekiago erakutsi duenez.

España projektua ere guztietara defenda daiteke, gerra zikina baren.

Euskal Herria projektua, aldiz, ezin defenda daiteke. Nahiz ongi ikusia izan, hori bai, folklore cántabro-orientala, ikurritza ongi moztorturik.

Hemen, jaun andereok, espainiarra izan daiteke. Euskalduna ez.

Euskal Herria nahi dugunok, eta soluziotzat Auto-Determinaziorako bidea proposatzen dugunok. *«A por ellos»* entzuten dugu, eta jasaten. Eta *el fuego purificador de todas las cruzadas* eskaintzen zaigu... *Demokraziaren* izenean! Garbi da hautakizuna bederen. ■